

Beste gai batzuek bigarko utzita otoitzez amaitu da batzaraldi au.

Bilbo'n, Euskaltzaindiaren etxean, 1923'ko Uri- la'ren 31'an.

Aurreko batzaraldian aipatzen diran euskaltzain berak bildu dira.

1. Aita Intza'k Euskaltzaindiari eskari bat aurkeztu dio. Ondo dakite euskaltzañak gaur dan egunean len baño askoz geiago euskeraz idazten dala. Au guzientzat pozbide aundia da bañan aitortu bear du ordea izketan ari dan euskaltzañak, ez dutela euskal-irakurleak idazleen lan onuragarri ofi bear bezela erantzuten; itz batez: irakurle euskaldunak bear dirala. Ortarako euskal-irakurle baltzu bat, aldan ařetaz, iratsi bear litzake. Asmo onek Euskaltzaindiaren onetsia berekin darama ta oni dagokion arlo auxe, orain sortu dan «Euskeraren adiskideak-i» egotzi bear zaiola deritzaio.

2. Lakonbe jaunak irakuři du *Academie Bretonne*-ri biali bear zaion agur-erantzupena. *Academie* onek bere agurra, aldi aurretik biali zion gure Euskaltzaindiari ta onek bere izateari dagokionez erantzun bear zion. Onetsi du bada Lakonbe jaunak egin duen idazki-erantzupen ori.

3. *Eskutitzak*. Asko irakuři dira baña geyen Euskaltzaindia arduratu duena Habanatik artu duen *cablograma* bat izan da. Ango *Centro Vasco* deritzan Baltzu-Zuzendariak agur bero bat Euskaltzaindiari bialtzen dio bere arazoan lanak asi dituen garayan.

Ezdago zer esanik, Euskaltzaindiak biotz beteko aguréz erantzun diola.

Ta beste gairik izan ez da, otoitzez amaitu da batzañaldi au.

Donosti'n, Aldundi-Jauregian, 1923'ko Azaroa' ren 22'an.

Batzañaldi ontara aipatzen diran euskaltzañiak datoz: Azkue maipuru, Urkijo, Lakonbe, Landeñetxe, Konstantin, Intza, Eguskitza, Altube ta Intzagarai eta urgazletatik Bahr jauna.

Araudiak agintzen duan otoitza egin-da asi da batzañaldi au.

1. Aita Intzak irakuñi ditu Napañoako Aldundiari igorñi nai dizkion bi idazki, Etxañi-Aranaz ta Donestebe'n izan diran euskal-egunen beñi emanik ta batez ere adierazirik zenbat onura ekañi dien toki oietako euskaldunai euskal-egun oiek; ta zertan eralki diran sorospideak. Euskaltzaindiak onetsi ditu idazki oiek.

2. Euskaltzainburuak esan du: Bilbo'ko Udalak orain arterañoako sorospidea euskaltzaindiari emango diola: Aldundiak ordea urñitu du berea ta datoñen urterako 5.000 peseta bakañak emango ditu. Arazo ontan, Azkue jaunaren iritzi onena auxe litzake: *Comisión de Hacienda* deitzen dan baltzuari itz egin, geyagoko sorospidearen eskabidez, ofetarako Etxegarai Karmelo jauna bitartekotzat jañi-ta.

3. Euskaltzainburu berak esaten du: Donestebe'ko euskal-egunen ondoren angoxe alkateari idatzi zitzaio-